

## **2017KO APIRILAREN 11AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-**

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

Ibernalo Basterra Txasko and.

#### **ZINEGOTZIAK:**

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

**IDAZKARIA:** Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamazazpiko apirilaren 11a izanda, arratsaldeko zortziak eta hiru zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

Gai-ordenekin hasi baino lehen, Alkateak zoriondu nahi izan du Maria Asun Quintana Uriarte zinegotzia andrea Nekazaritza Saileko zuzendari kargua betetzeko izendapenagatik, eta zorte ona opa ere garai berrian.

### **1.- AKTEN ONESPENA**

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen martxoaren 7ko ohiko bilkuraren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Garcia de Acilu jaunak aipatu du 6. orrialdean, aurreko orrialdetik jarraitzen duen lehenengo paragrafoan, haren luzapena dela eta, ez da argi uzten noren hitzak diren; Horregatik une horretan hizketan ari den pertsona Ruiz de Loizaga jauna dela argi uzteko eskatu du.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, A.J.A. 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

Zkia.	Data	Edukia
34	2017/03/02	KIROL ESPARRUAREN URBANIZAZIO HOBETZEKO LANEN 2. ZIURTZAGIRIAREN FAKTURA ONARTZEA
35	2017/03/06	IBILGAILUEN ZERGA-HOBARIA EMATEA
36	2017/03/06	OBRA-LIZENTZIA EMATEA FRESNEDOKO LOKALA ZAHARBERRITZEKO
37	2017/03/06	OBRA-LIZENTZIA EMATEA ESTALDURA AZPIKO SOLAIRUA ALTXATZEKO
38	2017/03/06	OBRA-LIZENTZIA EMATEA BT HORNIKETAN SENDOGARRIA JARTZEKO
39	2017/03/06	OBRA-LIZENTZIA EMATEA BEROGAILUAREN HODIA BIRGAITZEKO
40	2017/03/06	OBRA-LIZENTZIA EMATEA 1079 - 1108 LURZATIETAN ELKARKETA ETA ZATIKETA HORIZONTALA EGITEKO
41	2017/03/09	GAINBALIOEN KITAPENA ONARTZEA
42	2017/03/09	2016KO UDAL DIRU-LAGUNTZEN BEHIN BETIKO EBAZPENA
43	2017/03/09	ATERPETXERAKO PROIEKTU GEOTEKNIKOAREN KONTRATATZIOA
44	2017/03/13	GAINBALIOEN KITAPENA ONARTZEA
45	2017/03/22	GAINBALIOEN KITAPENA ONARTZEA
46	2017/03/22	01/2017 KREDITU-GAIKUNTZAKO ESPEDIENTEA ONARTZEA
47	2017/03/28	IBILGAILUEN ZERGAREN ZATI BAT ITZULTZEA BAJAN EGOTEAGATIK
48	2017/03/28	BANKU TRANSFERENTZIA ONARTZEA
49	2017/03/30	OBRA-LIZENTZIA EMATEA SANTO CRISTO MARGOTZEKO
50	2017/03/30	OBRA-LIZENTZIA EMATEA BALKOIAK KONPONTZEKO SAMUEL PICAZA PLAZAN
51	2017/03/30	BIOMASARAKO AFAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA
52	2017/03/30	ATERPETXEKO BIRGAITZEKO I. FASEKO FAKTURA ONARTZEA
53	2017/03/30	E.J.KO DIRU-LAGUNTZETAN PARTE-HARTZEA- ERAIKIN ANDEATUAK
54	2017/03/30	2016KO AURREKONTUAREN LIKIDATZEA ONARTZEA
55	2017/03/30	UDAL IGERILEKUAK KUDEATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA
56	2017/03/31	IBILGAILUEN ZERGA ITZULTZEA
57	2017/04/06	2017KO APIRILAREN 11AN OSOKO BILKURA DEIALDIA

## **3.- FUTBOL ZELAIAREN KONTRATUA ESLEITZEA, EGOKIA BADA ETA BERRAZTERTZE-ERREKURTSOAREN EBAZPENA ZIOEN AZALPENA:**

Santikurutze Kanpezuko herrian Kanpezuko Udalak futbol zelaian belar artifiziala jartzeko proiektua idazteko eta ondoren gauzatzeko egin duen lizitazioaren kontra Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2017ko martxoaren 30ean aurkeztu duen errekurtsoa ikusirik.

2017ko apirilaren 11an idazkariak egin duen txostena ikusirik, non aurkeztutako errekurtsoa ezesteko proposatzen zuen, oinarri edo arrazoibiderik ez duelako, eta aribidean dagoen lizitazioak era arduratsuan betetzen dituelako Europa eta nazio mailako araudiek ezartzen dituzten kontratazioaren printzipio gidariak.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren artikuluak, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.ñ) artikularen eskumenei esker oraingo espedientearen dokumentazioa ikusirik.

Santikurutze Kanpezuko belar artifizialeko futbol-zelaiaren proiektua egiteko eta ondoren gauzatzeko kontratazioa egiteko beharra ikusirik.

Otsailaren 14ko osoko bilkuran onartu ziren lizitazio arautzeko administrazio baldintzen pleguak ikusirik.

Lizitazio epean aurkeztu diren eskaintzak ikusirik.

Apirilaren 6an bildu zen kontratazio mahaia eta Obras Públicas Onaindia S.A. enpresaren aldeko proposamena egin zuen ekonomikoki onuragarriena dela ikusirik.

Aurkeztutako dokumentazioa –behin betiko fidantza eta zerga guztiak ordainduta edukitzearen eta Gizarte Segurantzarekiko egunean izatearen dokumentazioa- ikusirik.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren artikuluak, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.ñ) artikularen eskumenei esker oraingo espedientearen dokumentazioa ikusirik.

**XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute.

**LEHENA.-** Santikurutze Kanpezuko herrian futbol zelaian belar artifiziala jartzeko proiektua idazteko eta ondoren gauzatzeko A-01036920 IFZ duen Obras Públicas Onaindia S.A. merkataritza konpainiari adjudikatzea BERREHUN HOGEITA HAMAR MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO eta LAUROGEITA BI ZENTIMOAN (231.165,82 €), BEZ kanpo, Administrazio-baldintza partikularren plegua eta aurkeztutako eskaintzaren arabera.

**BIGARRENA.-** Obras Públicas Onaindia S.A. merkataritza konpainiari eskatzea zazpi eguneko epean agertzeko kontratua sinatzera.

**HIRUGARRENA.-** Lizitazio prozeduran parte hartu dutenei eta udal web-orriko [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus) kontratatzailearen profilean akordio honen berri eman.

**LAUGARRENA.-** Alkateari ahalmena ematea kontratu hau burutzeko beharrezko dokumentuak sina ditzan.

**4.- ADMINISTRAZIO JARDUEREN TASAK (IGERILEKUAK) ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA ZIOEN AZALPENA:**

Alkatearen ekimenez, zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeko hasierako onespenerako egindako espedientea ikusirik.

Uztailaren 19ko 41/1989 Tokiko Ogasunak arautzen dituen FORU ARAUAren 16 eta 18 artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 22 eta 27 artikulua kontuan hartuta.

**LEHENA.-** Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeko behin-behinean onartzea.

**BIGARRENA.-** Behin-behineko onarpenaren Akordioa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 30 eguneko epean Udal honen Iragarki-Taulan jendaurrean jarri, interesadunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.-** Jendaurrean egon den tarte igaro ondoren, egokia den behin betiko erabakia hartuko da eta balizko erreklamazioak erantzun dira. Erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkeztuko ez badira, erabakia behin betiko bihurtuko da ordura arte behin-behinekoa izango den akordia.

**LAUGARRENA.-** ALHAOn argitaratuko dira behin betiko akordioa -baita behin betikoa bihurtutako behin-behinekoa- eta aldaketen testua oso-osorik.

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza

*6.3. Igerilekuak*

*6.3.2. Tarifak*

*6.3.2.1. Urteko abonamendua*

*Tarifaren %50eko hobaria ezartzen da %65ko edo gehiagoko ezintasun maila onartuta dutenentzat, behin aipaturiko egoera egiaztapen ofizialarekin egiaztatu ondoren.*

**5.- ATERPETXEKO OBRAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA, EGOKIA BADA. ZIOEN AZALPENA:**

Santikurutze Kanpezun, Etxajaun XXI S.L. enpresak burutu duen udal aterpetxeko likidazioa ikusirik.

Aurkeztu diren fakturak eta Javier Lizaso López de Aberasturi obraren zuzendariak ontzat emateko txostena ikusirik.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren artikuluen arabera arlo horretan Udaleko Osoko Bilkurari egokitzen zaizkion eskumenak eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 artikuluen arabera eskuduntzak ikusirik.

#### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute:

**LEHENA.-** Aterpetxeko obraren 2016/66 eta 2017/27 fakturen arabera likidazioa onartzea 165.792,09 euroan, BEZ kanpo.

**BIGARRENA.-** Kontuhartzaitzari helarazi egindako gastuak kontabilizatzeko.

#### **6.- GASTUAREN ARAUA HAUTSI IZANARI BURUZKO KONTUHARTZAILAREN TXOSTENAREN BERRI EMAN**

Ikusirik 38/2013 Foru Araua Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 7. Artikuluaren 4. Atala, ekainaren 18ko 2014/17 Foru Arauan ezarri bezala, gastu araua betetzen ez duten erakundeek, planaren ordean, Kontuhartzaitzak sinatutako komunikazioa bidali ahalko diote udalbatzari, eta hartan, erakundearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko da. Horretarako, ordea, erakundeek baldintza hauek ere bete behar dituzte:

— Diruzaintzako gerakinak eta aurrezki garbi positiboa erabiliz, ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontua likidatu izana edo, hala badagokio, likidatzeko aurreikuspena izatea.

— Hurrengo ekitaldirako ezarritako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzea.

Ikusirik txosten horretan jasotakoa eta Udal honen 2016 ekitaldiko likidazioa osatzen duten beste dokumentuak, defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzen dira, baita diruzaintzako gerakinak eta aurrezki garbi positiboa.

Ikusirik gastu araua ez-betetzeak izan dela gastu arruntak zein inbertsio gastuak Udalaren baliabide propioekin onartu izanaren ondorioa, betiere. Dena dela, Udalak gastuen gehikuntza hau baliabide propioekin onartu duen arren, aurrezki garbi positiboa izaten jarraitzen du, 93.979,57 €; hau da, diru-sarrera arruntaren %9,92. Horrekin bermatzen da entitate honen finantza iraunkortasuna, erantsitako dokumentuetatik ondorioztatzen den bezala.

Hortaz, Kontu-hartzaitzaren txostena ezagutzera ematen zaio udalbatzari, non entitatearen finantza iraunkortasuna bermatuta dagoela ezartzen den.

Udalbatza jakitun da.

#### **7.- 2017AN ARAUAK ALDATZEKO PROPOSAMENAREN ONARPENA, EGOKIA BADA.**

Ikusirik urtez urte, administrazio publikoek argitara eman beharko dutela araugintza-plan bat non hartan jasoko diren hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak; urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, bere 132 artikuluan jasota.

Esandako plana gardentasun atarian argitzeko beharra ikusirik.

Honako araugintza-plana proposatzen da, beste aldaketa-proposamen bat egiteko aukera zabalik utzita:

1. Entitatearen aurrekontu orokorraren proposamena.
2. Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena.
3. Administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeko proposamena.

Berau bertaratutakoek aho batez onartu dute.

## **8.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA**

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura zinegotziak, azaldu du udal aldizkarian maiatza eta abuztua bitarteko egutegi kulturala aurreratzen dela, nabarmendu ditu: liburuaren eguna, aerobitona eta mendi maratoni-erdia.

Alaveseko jokalariekiko hitzordua atzeratu dela esan du, data berria hilaren 25a.

Hurrengo apirilaren 26an, polikiroldegiko horman egindako horma-irudia amaitzeko lanei ekingo zaiela esan du, era berean.

Sáenz de Ugarte andreak jaso den diru-laguntzari buruz eta proiektuaren amaierako gastuari buruz galdetu du. Zinegotzi andreak esan du une horretan ez dituela datu horiek, baina kontsultatuko eta emango dizkiola.

Zinegotzi andreak jarraitu du, eta azaldu du kultura elkarteekin eta administrazio batzarrekin bildu egin dela Kultur arloko aurrekontuko partidaz, eta haiekin elkarlanean aritzeko bidez hitz egiteko, bigarren bilera ere egingo da.

Arenaza andreak, Gizarte arloko Zinegotziak, aipatu du apirilaren 5ean zurrumurruek aurkako beste bilera bat egin zela, non garatzeko dauden ideia berriak azaldu ziren. Maiatzaren 3an izango da hurrengo bilera.

Eguneko zentroein zuzendutako AFAn diru-laguntzetan parte hartzeko aztertzen ari dira, horretarako gizarte laguntzaileen txostenaren zain daude.

Zenbait eskaera ondoren, aztertu dute energia hornitzaileen kooperatiben gaia, eta hurrengo egunetan interesa dutenei bilera batera deituko diete non funtzionamendua ezagutuko den.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza zinegotziak, aparkalekuei buruzko zenbait bilera egin dituztela esan du, baina behin betiko proposamena ez dute jaso nahi bukatzeke dauden lanak, eta disuasio-aparkaluekuen gaia amaitu arte; orain esparru bat lortu da, baina beste bi esparruak lortu nahi dira, eta hirugarren baterako kontaktatu behar dute.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du non dagoen akordio lortu den esparrua.

Zinegotzi jaunak adierazi du nahiago duela jakitera ez ematea aribidean dauden negoziazioak ez oztopatzeke.

Herrador eta Saenz de Ugarte jaun-andreek galdetu dute lagapenari buruz, zinegotzi jaunak adierazi du negoziazioak bukatu arte datu gehiago ez ematea nahiago duela.

Zinegotzi jaunak, era berean, martxoaren 21eko Kuadrillako batzarrean jorratu diren gaiak azaldu ditu.

Garbiguneri buruz, esparru hori ez duen Arabako eskualde bakarra da gurea. Orain da une egokia, izan ere, egikaritze aurreproiektu bat, eta 700 mila euroko gordailua badaude. Hortaz, AFArekin eta Sprilur-ekin zenbait bileren ostean, eta Herrador jaunari

jakinarazi ondoren, lursailak eskuratzeko arazoa dagoela egiaztatu da; aurrekontuaren akordioan –Herrador jaunaren aburuz, 600 mila eurokoa da- ez dago lurak erosteko partidarik.

Muñoz jaunak parte hartu du, eta bestelako datuak badituela adierazi du; horrela proiektuak 740 mila euroko kostua du. Benetan proiektua garatzeko interesa izatekotan -eta hark oso asmo handikoa dela uste du- borondate politikoa lortu ahal da proiektu doi bat egiteko non lurren erosketa ere sartuko litzateke.

Bukatzeko, kirol esparruaren lanei buruz, ia bukatuta daudela azaldu du, eta hormigoizko mahaiak Araba Camperren berrerabili dituztela, jasangarritasun irizpideekin.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du zirkulazioari buruz, haren norabidea markatzen duen ordenantzarik dagoen, zinegotzi jaunak aipatu du lanean ari direla, baina bukatu behar dutela.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotziak, aipatu du udal aurrekontua ALHAOn bitan argitaratu dela, buletinaren akats batengatik. Eta osoko bilkuran onartu ziren zenbatekoen eta iragarkian argitaratu ziren zenbatekoen aldeari buruz honakoa azaldu nahi du: buletinean argitaratu dena ontzat ematen da, guztira 1.574.410. Osoko bilkuran adierazi zen zenbatekoarekin (1.711.400) dagoen aldea dagokie ekitaldi honetan inbertsio arloan egin nahi diren gastu guztiei. Kasu honetan, udalaren errekurtsioak izango direnez, ez da esandako kopurua iragarki ofizialean agertu.

Hurrengo aurrekontuen proiektuan beste modu batez azalduko da ekitaldi honetan gertatu den nahasmena saihesteko.

2016 ekitaldiko amaierako partiden likidazio datuak eman zaie Udaltzako kideei.

Egikaritze egoerari buruz, gastuen aldeko 6 mila euroko desfase txiki bat dagoela esan du, baita diruzaintza-kontakteta 200 mila eurotik gora dagoela ere.

Herrador jaunak datu horiek idatziz eskatu ditu.

Operarioei buruz, Lanbideren aurtengo deialdiaren zain daudela esan du, hortaz, gerta daiteke kontratazioa atzeratzea.

Aterpetxeari buruz, eraikinaren behin betiko antolamenduan lanean ari dira, ondoren, instituzioei memoria aurkeztu ahal izateko, eta diru-laguntzak eskatzeko aukera izateko.

Futbol-zelaiari buruz, esan bezala, Onaindia enpresa-eraikitzaileari esleitu zaio, udan egin behar du, baina epe gutxirekin atzerapenak ekiditzeko; izan ere, hilabete batean proiektua izan behar du, eta hiru hilabetetan burututa.

Bukatzeko, administrazio batzarrekin bilera izan dutela esan du, bertan aurrekontuan haiei zuzendutako diru-partidak izan dira mintzagai. Baita ere, txakurren gaia, kaleen garbiketa eta gai ekonomikoa eta haien baliabideen ustiapena.

Alkate andreak azaldu du hurrengo Osoko Bilkura maiatzaren 9an izango dela.

## **7.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Alkateak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten; Saenz de Ugarte andreak parte hartu du, EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile moduan, adierazteko azken osoko bilkuran gertatutakoa oso desatsegina izan zela, eta publikoak ezin duela zinegotzien hitzaldia behartu. Mintzatzen denean errespetuz egin behar dela, berriro gertatzen bada, osoko bilkuratik alde egin beharko dutela.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko bederatzietan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.